


Abenduaren 18a, Migratzaileen Nazioarteko Eguna


Euskal Autonomia Erkidegoan, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %12,9 atzerritar nazionalitatekoak dira. EAeko biztanleria osoan, berriz, atzerritarren ehunekoa apalagoa da, %6,1ekoa, alegia.

Ehuneko hauek nabarmen areagotu dira azken urteotan: 2000n, esate baterako, atzerritarrek osatzen zuten ehunekoa %1,3 zen gazteen artean eta %1,0 biztanleria osoan.




Iturria: [INE, Udal Erroldaren Berrikusketa](#) 2000, 2004, 2008 eta 2009.

EAEn atzerritarren kopuruak izan duen gorakada argiro islatzen da Euskadiko gazteek etorkinei buruz duten pertzepzioan. Izan ere, 2008an, herena baino gehiago dira (%38) Euskadin beste herrialde batzuetako jende gehiegi dagoela uste duten gazteak.



Iturria: [Euskadiko gazteak 2008](#).

Iritzi hori dutenen pisuak gora egin izanaren ondorioz, azken urteotan igo egin da neurririk egokiena lan-kontratua duten atzerriko langile etorkinei bakarrik sartzen uztea dela dioten gazteen kopurua. Horrenbestez, behera egin du atzerritarren sarrera ahalik eta gehien erraztu behar dela diotenak.



Iturria: [Euskadiko gazteak 2008](#).

Nolanahi ere, EAEko gazteen ia hiru herenen ustez (%62), etorkinek onura handia egiten diote Euskadiri. Iritzi hau hedatuago dago gazteen artean 30 urtekoen eta nagusiagoen artean baino (%56), [Gazteen argazkiak 11](#) azterlanak esaten duenaren arabera.

EAEko gazteei berriki egin zaien inkesta batean atzerrira lan egitera irteteko prest leudekeen galdetu zaie, eta erdiek baino gehiagok baietz diote: %37,7 ziur joango lirateke eta %27,4 segur aski. Datu hauek argitaratze-prozesuan dagoen *EAEko gazteen nazioarteko mugikortasuna* azterlanari dagozkio, 2011ko lehen seihilekoan plazaratuko dena.